

**Espainiar Estatuko Herri-Erabileren eta
ICCA-n babes eta aitorpenerako
Valdeavellano de Tera-ko adierazpena**



Espainiar Estatuko Herri-Erabileren eta ICCA-n babes eta aitorpenerako Valdeavellano de Tera-ko adierazpena

Behean izenpetzen dutenek, Valdeavellano de Tera-n (Soria, Espainia) 2013ko Urriaren 4 eta 5 egunetan burututako ICCA Consortiumeko batzarraren esparruan, eta Espainiar Estatuko **Erakunde Lokalek Kontserbatutako Guneen (ICCA)** azterketa, babesa eta onespena sustatze asmoz "**Ekimen komunalak: Erakunde Lokalek Kontserbatutako Guneen aitorpenerako ekimena**" izeneko lantaldea eratze aldera bideratutako bilkuran hartutako akordioen arabera, **zera adierazten dugu:**

1.- Herri-erabilerak eta bere ondareak eta bere baitako eskubideak Espainiar Estatuko Kultur Ondarearen (Inmateriala ere barneratuz), Ingurunearen eta Sozio-Ekonomikoaren parte dira. Herri-erabilerak (arrantza, larre, ehiza, baso-erabilerak, ureztatzeak eta beste) gako izan dira landa-eremuko eta orohar gizarteren biziraupen sozio-ekonomikorako, talde sozial eta lurralde kaltetueneen babes eta integrazioarako, edo lurraldearen kudeaketa iraunkorrerako, eta beraz, aztertu, onetsi eta babestu egin behar lirateke.

2.- Herri-erabilerak biodibertsitatearen, paisaiaren eta ekosistemen kontserbaziorako gako izan dira, eta bai ekosistema hauek gizaritari eskaintzen dizkioten baliabide, zerbitzu eta baloreen kudeaketa eta kontserbazio egokirako; ustiapen-modelo hauek eta bere prozesu ekologikoak ezinbesteko izanik ondare natural eta kulturalaren joritasun eta aniztasuna azaltzeko.

3.- Oro har, ondare komun honek eraso-kopuru handia jasan du historikoki. Desamortizazioek, usurpazioek, munizipalizazioak, alienazioek, ezagutza sozial, juridiko, legezko eta administratiboaren gabeziak eta erabaki politiko desegokiek ondare humano, sozial, ekonomiko, natural eta kulturalaren neurrigabeko galera ekarri dute. Egun herri-erabileren eta bere baitako ondasunen kudeaketa erakunde lokalei kentzeko era desberdinetako erasoek bere horretan darraite.

4.- Erasoak gertatuta ere, herri-erabileren onuradun eta titularrak historikoki erakutsitako jarrerari esker, bere eskubideen alde, ondare natural eta kultural hau gobernatzeko era arrunt, arrakastatsu eta hedatua da oraindik orain. Balio natural, ekonomiko eta kultural handiko mendi komunalak, patzuergoak, auzo basoak, arrantzako edo mariskatzeko kofradiek, fazeriak, arrantza-eskortek, ehiza-elkarteak, aurrez aurreko-ubideek, ledaniak eta beste gobernu-era batzuek milioika hektarea batzuk kudeatzen dituzte, eta ehundaka mila herritarrek herri-baliabideen kudeaketa modu parte-hartzaile, zuzen, egonkor eta iraunkorrean egindako sendartze eta partehartzearen adierazpena dira.

5.- Erabilera komunen ezaugarri bereizgarriak diren hiru oinarriak aitortu, sostengatu, sustatu eta babestu behar dira, hala nola, **Komunitatea, Gobernanza eta Naturaren Kontserbazioa**, nazioarteko hainbat erakundek onetsitako ICCAren (Erakunde Lokalek Kontserbatutako Guneak) definizioan deskribatzen den gisa. Zentzu honetan, herri-erabileraren izaera nabarmenarazten duten eta gizarterako batikbat baliotsu bihurtzen dituzten ezaugarriak mantendu eta sustatu behar dira, artean, iraunkortasunari dagozkionak, egokitze gaitasunari lotutakoak, multifuntzionaltasunezkoak, balio kultureko integraziozkoak, baliabideen banaketa ekitatibo eta justizia sozialaren arlokoak, erantzunkidetasunezkoak, prozesu parte-hartzaileen baitakoak eta komunitate lokalen sendartzezkoak.

6.- Nazioarteko organismo garrantzitsuak, hala nola Ingurumenerako Nazio Batuen Programa (PNUMA), Dibertsitate Biologikorako Hitzarmena (CBD), edota Naturaren Kontserbaziorako Nazioarteko Erakundea (UICN), gero eta enfasi handiagoarekin aitortzen ari direla Komunitate Lokalek (ICCA) Kontserbatutako Guneen paper garrantzitsua naturaren kontserbazioan eta baliabideen kudeaketa iraunkorrean maila globaletik ikusita. Hala ere, eta hau jakinik, Espainiako administrazio publikoetatik ez dute balore hori aitortzen eta gizartearen aldetik ezjakintasun handia dago, eta horregatik premiazkoa da ICCA-k duten funtzio sozial, ekonomiko eta ambientala aldarrikatzea, bai eta kontserbaziorako, nekazal guneen garapenerako eta orohar gizarterako duten potentziala ere.

7.- Herri-erabileren osasuna eta ekonomi, gizarte- eta ingurune-errendimendua, horiek kudeatzen dituzten pertsonen menpe daudela eta euren gobernanza eta funtzionamenduko benetako espezialistak direla. Gizon eta emakume hauek sozialki sostengatu behar dira, euren lana bidezko baldintzetan garatzen jarrai dezaten. Beraz, herri-lurrei eragiten dieten erabaki politikoetan euren parte-hartzea ezinbestekoa da, komunalen mantenua eta etorkizuneko iraunkortasuna ziurtatzeko.

8.- Aurretik aipatutakoa kontutan harturik, Espainian dauden titulartasun nahiz kudeaketa kolektiboaren forma eranitzen biziraupena bermatzeko eta duten potentzial itzela eta balore asoziatuak garatzeko, beharrezkoa da itun eta sinergia berriak sustatzea, maila lokaletik globalera, oinarriko parte-hartzean, komunitate lokalen ahalduz eta ikuspegi parte-hartzailean oinarrituta (“behetik gora”). Horretarako, arreta berezia jarri behar zaio herri-erabilerak kudeatzen dituzten komunitateen arteko elkarrekiko solidaritate-kanalen ezarpenari, bai eta gizarte-eragile berriekiko helburu komunaren ezarpenari ere, bereziki ikerketa zientifikoaren alorretan, naturaren kontserbazioan, irakaskuntzan, eskubidean eta komunikazioan. Aipaturikoez gainera, herri-erabileren eta hiri-komunitateen arteko ituna gehitzea posible izango litzateke, batzen dituzten era askotako loturak potentziatuko dituen.

9.- Orokorrean, badagoela ondoko hiru baieztapenak frogatzen dituen oinarri zientifiko sendoa: 1. herri-erabileren kontribuzio historikoa berdintasunean oinarritua eta iraunkorragoa den garapenean, 2. gaur egun duen ekarpen sozial, ekonomiko eta ambiental garrantzitsua, 3. ekimenak garatzeko potentziala, egungo gizarteak eta datozen belaunaldiak dituzten erronka sozial, ambiental eta ekonomiko batzuei aurre egiten lagunduko dietenak. Zentzu honetan, Elinor Ostrom doktoreak irekitako ikerkuntza-lerroa nabarmenduko dugu, Ekonomiako Nobel Saria 2009an, frogatu zuena *“nola kudea ditzakeen erabiltzaile-talde batek ondasun komunak era eraginkorrean”*, publiko/pribatu dikotomia apurtuz titulartasun kolektiboaren baloreak berreskuratutakoan, eta horrela desmuntatuz hain sustraituta dagoen ikusmoldea, batzuetan interesekoa dena, alegia, jabeago komunaren kudeaketa berezko izaeragatik hondamenera ahokatuta dagoela.

10.- Aurrean aipaturiko arrazoiengatik, herri-komunitateen, administrazio desberdinen eta orohar gizartearen lehentasuna izan behar duela ondare kolektibo honen babesaren eta errekonozimenduaren alde egitea, **bestereinezintasuneko, zatiezintasuneko, preskribaezintasuneko eta enbargaezintasuneko** printzipioetan oinarrituta, bai eta komunitateen idatzizko eta ohiturazko eskubidearen errespetua bermatzea, beren errekonozimendu legal osoa, beren gaitasun juridiko osoa euren baliabideen kudeaketa eta defentsan, eta euren gobernanza-organoen parte-hartze egokia ondare honi eragiten dioten erabakiak hartzeko orduan. Zentzu honetan, oraingo eta etorkizuneko lege-erreformek komunitate lokalen eskubide historikoak eta herri-ondarearen kudeaketako euren autonomia errespetatu behar dituzte. Halaber, herri-erabilerak eta bere ondare zein eskubide asoziatuak, era parte-hartzaile eta iraunkorrean kudeatu behar dira, datozen belaunaldien gozamenerako ondare honen transmisioa bermatzeko, dituen balore ekonomiko, sozial eta ambientaletan inolako galerarik sortu gabe.

Sinatzaileak:



Mancomunidad de Montes Veciñais en Man Común de Castrove-Salnés



Federación Estatal de Pastores



MANCOMUNIDADE DE MONTES VECIÑAIS EN MAN COMÚN DO MORRAZO



Grupo de Estudos da Propiedade Comunal

Comunidade de Montes de Vilar de Triacastela



www.icomunales.org
hola@icomunales.org